



Argazkia / Foto: Gorka Orsoa de Alda

BIBAT Arkeologia Fournier de Naipes Museoa
Aiztogile kalea, 54 Calle Cuchillería, 54
01001 Vitoria-Gasteiz
945 20 37 07 945 20 37 00
bibat@araba.eus

Orduategia / Horario

Asteartetik ostiralera 10.00 - 14.00 / 16.00 - 18.30 Martes a viernes
Larunbatetan 10.00 - 14.00 Sábados
Igande eta jaiegunetan 11.00 - 14.00 Domingos y festivos
Astelehenetan, jaiegunak izan ezik, itxita Lunes, excepto festivos, cerrado



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Harri bakartiak. Arabako menhirrak

Piedras solitarias. Menhires de Álava

erakusketa

2106ko martxoa ekaina arte

exposición

Marzo - junio de 2016



Harri bakartiak. Arabako menhirrak

Menhirrak dira, trikuharriekin batera, gaur egunera arte iraun duten lehenengo arkitektura lekukoak, eta megalitismoaren, hots, “**harri handiz**” egindako eraikuntzaren, adierazpen agerikoena. Gaur egun haietako asko erorita dauden arren, guztiak altxatu zituzten Neolito arotik aurrera, hau da, duela **7.000 urte** ingurutik aurrera, nekazaritza eta abeltzaintza garatzen ari ziren garaian.

Zaila da azaltzea zer helbururekin sortu ziren monumentu horiek. Mugaren bat adieraziko zuten beharbada, edo espazio erreferentzia gisa baliatzen zituzten, agian; edo oroitzapenezko monumentuak ziren apika, edo idoloak ere izan zitezkeen. Teoria ugari eta askotarikoak daude, baina bat bera ere ez dute frogatu.

Kontinente guztietan daude menhirrak, baina bikainenak Europako alde atlantikoan. Hain zuzen ere, izena bretoieratik dator (**men-harria eta hir-luzea**).

Araban katalogatu zen lehen menhirra Akartekoa izan zen, Entzia mendilerroan dagoena. 1919an deskribatu zuten euskal arkeologiaren aitzindari T. Aranzadik, J. M. Barandiaranek eta E. Eguren. Gaur egun, gure lurraldean **24 menhir daudela ziur dakigu, eta beste 13 menhir izan daitezke.**

Piedras solitarias. Menhires alaveses

*Los menhires constituyen, junto con los dólmenes, los primeros testimonios arquitectónicos que conservamos y son la expresión más evidente del megalitismo, de la construcción con “**grandes piedras**”. A pesar de que hoy muchos de ellos se encuentran aídos, todos ellos fueron levantados a partir del período Neolítico, desde hace unos **7.000 años**, cuando la agricultura y la ganadería se estaban desarrollando.*

Es difícil explicar la finalidad de estos monumentos. Tal vez señalizaban un límite, o servían como referencia espacial, o tal vez fueran monumentos conmemorativos o incluso ídolos. Las teorías son muchas y variadas, pero ninguna está demostrada.

*Existen menhires en todos los continentes pero los más sobresalientes se encuentran en la Europa Atlántica. De hecho, su nombre proviene del idioma bretón (**men-piedra e hir-larga**).*

En Álava el primer menhir catalogado fue el de Akarte, en la Sierra de Entzia, que fue descrito en 1919 por los pioneros de la arqueología vasca T. Aranzadi, J. M. Barandiarán y E. Eguren. Actualmente conocemos en nuestro territorio **24 menhires seguros y otros 13 posibles.**